

I MODULUA TESTUINGURU

EPISTEMOLOGIKOA

1.1.BANAKAKOA, FAMILIAK ETA BERE ALDAKETA SOZIALAK

1.1.1 NORBANAKOA:OINARRI TEORIKOAK ETA BERE APLIKAZIOA GIZARTE LANGINTZAN

NOLA ULERTZEN DUGU GIZAKIA GIZARTE LANGINTZAN?

- Gizakia osatzen duten elementu guztiak ulertu behar dira. Hauek elkar eragiten dira ingurunearekin batera:
 - biologikoa
 - psikologikoa
 - soziala
- Edozein elementuetan gertatutakoak eragina du besteetan (Adib. Gaixotasun fisiko batek ondorio psikologikoak izango ditu ere).
- Pertsonarengan harreman zuzena duen elementuan lan egitea ez denean posible → besteak landuz hobekuntzak edo ondorio negatiboak gutxitzea lor daiteke (Elkar eraginean daudelako).
- Gizakia bere ingurunearekin harremanetan dagoela eta ahalmenak garatzeko beharrezkoa dela onartzen dugun eina → ingurunean egiten dugun edozein ekintzak ondorio positibo eta negatiboak izango dituela pertsonarengan onartzen dugu.
 - ↳ Beraz, ingurunea hobetzeko egiten duguna: ekintza prebentiboa da eta eragin zuzena izango du pertsonen ongizatean.

Gizakia eta ingurunea elkarrekin daudenez → Gln esku-hartzea bietara zuzendu behar dugu, ez bakarrik itxuraz indibidualak diren arazoetara.

GIZAKIA ETA BERE EKOSISTEMAK

- Gizakia ingurune ezberdinetan garatzen da, perspektiba ekologikoa jarraituz, honi ekosistema deitzen zaio.
- Gizakiok bizirik irauteko, garatzeko eta gure ongizatea bermatzeko gure txoko ekologikoa aurkitu behar dugu bere ekosisteman.
- Horrela izanda, gure ingurunearen baliabide sozial eta materialak eskuratzeko rolak garatu ahal ditugu.

Gizakia ekosistema ezberdinetan kokatzen da:

- **FAMILIAREN EKOSISTEMA** (hazkundera, garapena)
- **LANA ETA HEZIKETAREN EKOSISTEMA** (hazkunderaren jarraipena, gure rolen garapena, harreman sozialak)
- **EKINTZA SOZIO-KULTURALEN EKOSISTEMA** (lagunak, harreman sozialak, ekintza kulturalak-kirolak-sozialak)
- **EKOSISTEMA KOMUNITARIOA** (aurreko ekosistemen ingurune geografikoa, zerbitzuen antolaketa, beste ekosistemen beharretara erantzuten)

Gizakia eta inguruenaren arteko elkar eraginean eragile ezberdinek hartzen dute parte:

- **ERAGILE POLITIKOAK** (gizartean nola hartzen diren erabakiak, antolaketa soziala, boterea)
- **ERAGILE EKONOMIKOAK** (gizarte baten aberastasunen ekoizpena, banaketa eta kontsumoa)
- **ERAGILE SOZIO-POLITIKOAK** (arauak, balioak, sinesmenak, ohiturak, hartutakoak eta konpartitutakoak, harremanak)
- **ERAGILE FISIKOAK** (klima, erliebea, distantzia, altuera)

→Elkar eragin honetan sorturikoak egoera berrietara eta pertsona ezezagunetara egokitze ahalmena errazten du.

INGURUNEA ETA ARAZOEN TESTUINGURUAK

- Arazoak eta egoera problematikoak ez daude espazio hutsean → inguruneko eta kontestuaaren aldagaiekin lotuta dute
- Ingurune batzuk gizakiak dituen arazoak ulertzen laguntzen dute:

- **KULTURALA:** Kultura ezberdinen arteko talka (hegemonikoa vs. menpekoa)
→ Honek arazoak ekartzen ditu: asimilazioa, alienazioa edo eta konfiantza eza.
- **ARRAZIALIZAZIOA:** Gorputzak, gizarte taldeak, kulturak eta etnizitateak
produzitzen dituen prozesu soziala da → Hauek norbanakoen kategoria
finkoen adierazletzat hartzea.
- **FAMILIA:** Gurasoek eragina zuzena edo ez zuzena dute seme-alaben
portaeran, sozializazio prozesuak familian hasten dira eta.
- **LANA ETA HEZIKETA:** Adierazgarria lana ez dagoenean, eta ez izateagatik
sortzen diren arazoak. (Adib. Krisi egoeran lan egiten duten langileek estresa
pairatzen dute, etxean suminkortasuna agertzen da, arazo fisiko zein
psikologikoak agertuz.)
- **BIZITOKIA ETA ETXEBIZITZA:** Bizilekurik eza, infraetxe egoerak, etxebizitza
komunitarioak, babespeko etxebizitzak.
- **OSASUNA:** Osasun egoerak arazo psikologiko ezberdinak ekarri ahal ditu.
(Hormona arazoek → depresioa edo gogogabetasuna. Tratamenduan
daudenak → portaera aldaketak, bereziki tratamendu psikologiko eta
psikiatrikoarekin: alkohola, drogamenpekotasunak, ludopatiak, eta bestelako
menpekotasunak.)
- **GENERO:** Arazo gehienak genero ikuspegiarekin ulertu behar ditugu. Hemen
ikasitako jarrera sexualaren ezberdintasuna egongo litzateke.
- **LEHENTASUN SEXUALA:** Gutxiengo baten lehentasuna denean
(homosexualitatea, bisexualitatea) arazoak sortzen dira: adaptazio arazoak,
autoestimua eta identitatea galtzea, bai maila pertsonalean zein sozialean.
- **ADINA:** Adinarekin sortzen daitezken diskriminazioak (Mendebaldeko
kulturarekin egoten dira lotuta, ekialdean askoz estimatuak dira eta.)
- **ERREFERENTZI TALDEAK:** Gizakia animalia soziala da, taldeetan egoten da
kokatua → Horregatik, askotan erabiltzailearen portaera ulertzeko hobe da
bere taldera joatea. (Adib. Nerabe batek delituzko jarrera izan ahal du taldeak
bultzatuta, bakarrik ez luke egingo)
- **ERLIJIOA:** Pertsona askorentzat erlijioa euren bizitzaren atal nagusi bat da eta
hau kontuan izan behar da.
-

1.1.2. FAMILIA: kontzeptua, jatorriak eta egungo egoerak

HERRIKO ATSOTITZA:

Zure lagunak aukeratu ahal dituzu, baina zure familiarekin lotuta geratzen zara betirako.

⇒Gaur egun zalantzan jartzen da. Gizarteko esparru bat da ez duena norberak aukeratzeko eta erabaki dezakegu noraino eragin dakiguen neurri batean.

⇒Familia kontzeptua arbasoetatik dator (nahiz eta ereduak aldatu eta familia hegemonikoak desberdinak izan). Eta historian zehar iraun badu, baliogarriak dira.

⇒Hala eta guztiz ere, familiari heltzeko zailtasunak izan ditzazkegu.

⇒Aldi berean, geroz eta familia anitzagoak dade eta GL bezala flexibilitatea izan behar dugu konplexutasun ezberdinak ulertzeko.



⇒Familiaren konplexutasuna ikuspegi ezberdinetatik uler daiteke.

ZER GERTATZEN ARI DA?

- Gaur egun, gure gizartean familiaren kontzeptua konplexuago bihurtu da.
- Erreferentzia puntu gutxi ditugu eta askotan bere barruan ixten da, bertan zehaztuz, esaterako, barne arauak.
- Familia izateko negoziaketaren beharra dago

- Genero rolak
- Egitura horizontalak
- Mugak
- Harremanak
- Familia motak

ZER DA FAMILIA?

- Familiaren kontzeptura hainbat diziplinatatik heldu daiteke: Antropologia, Soziologia, Psikologia, Medikuntza, Zuzenbidea, Ekonomia, Gizarte Lana, etab.
- Bigarren zailtasun bat subjektibismo- eta hunkiberatasun-mailarekin lotzen da: bakoitzak dituen esperientzia pertsonalen arabera da, pertsona bakoitzaren barruan familia-kontzeptu bat baitago.
- Denok ditugu familiari buruzko esperientziak → jatorrizko familia batekoak gara, baliteke gure familia eratu behar izatea, eta horrek ezinbestean inplikatzeko dituzten bizitako emozioak, afektuak eta fobiak.
- Beste zailtasunetako bat familiaren barruan bilakaera historikoan gertatutako aldaketetatik dator, bai eta gizarte garatuetan izandako aldaketetatik eta aldaketetatik ere.
- Aldaketa horiek eragina izan dute familia-portaeren tamainan, egituren, osan, dinamikan, funtzioetan eta familiaren barruan aurkitzen ditugun formen aniztasunean; baita familiak prestatzeko jarraibideetan, bikoteko kideen arteko bizikidetzajarraibideetan. (Belaunaldi berrien hazkuntza eta sozializazioa, mendekotasuna duten pertsonen zaintzak administratzeko estrategiak, etab.)
- Familiaren arloko objektibotasun zientifikoa oso ahula da (Pastor Ramos)
 - a) Familiako kide izateak subjektibotasun emozionaleko dosi handiak pizten dituelako behatzaile bakoitzarengan.
 - b) Oro har, familia batek oso esperientzia gutxi pilatu duelako beste familia batzuetatik, norberaren edo lagun batzuen etxetik haratago.
 - c) Ideologia politiko, erlijioso edo filosofikoek kontzeptua baldintzatzen dutelako.

- Familiak izaera duala du:
 - Dimentsio pribatua → bere kideen beharrian indibidualak asetzen laguntzarekin lotuta
 - Dimentsio publikoa → parte den gizartearentzat baliagarria izan behar du, eta bere osagaiak gizarteratzea funtsezko eginkizuna da
- Funtsezko gizarte-erakundea da, eta beste gizarte-arlo batzuetan (ekonomian, hezkuntzan, lanean) eragina izan du.
- Gizartean gertatzen denari estuki lotuta egonik → gizartearen bilakaeraren menpe dago. Familiaren egitura, forma, garapena, garrantzia edo garrantzirik eza eta funtzionaltasuna baldintzatzen dute.
- Familia gizateria sozialaren jatorrizko ondarea da, goi-abereen erresumaren oinordetza ere datorkiona → hontatik ondorioztatzen da familiak erresistentzia gaitasuna duela historiaren gorabeheri aurre egiteko.
- Familia baebsten duten legeak daude, baina gaur egungo gizartean ez dira benetan aplikatzen eskubide horiek.
 - ↪ Eta familia batzuek zailtasun handiak izaten dituzte kide txikienentzat erreferentziatzko lehen mailako talde bat eratzeko.
- **Hainbat arazok** eragindako familiez ari gara (pobrezia, langabezia, indarkeria, droga-mendekotasuna, aukera-falta, gizarte isolamendua eta -arbuioa, etab.)
- Familia-esperientzia funtsezkoa da familiako kideak garatzeko eta heltzeko → hainbat lanbide daude familiak laguntzeko (GL adib.)

BEGIRADA SISTEMIKOA

Kanpora eta barrura begira dagoen sistema, autorregulatua, eta funtzio ezberdinen arabera garatzen dena: senideen bizi-irautea, bakoitzaren beharrak asetzea.

- Begirada sistemikoaren baldintzak:
 - Familiaren egitura sistema soziokulturala da, eraldaketarako irekia dagoena.
 - Familiaren garapenaren arabera, etapa ezberdinak pasatzen ditu, berregituraketa beharrezkoa izanik.
 - Familia ingurunearen baldintzetara egokitzen da. Jarraipen bat izanik, kide bakoitzaren hazkunde psiko-soziala bultzatzen da.

- Objektuen eta objektuen atributuen arteko lotura da. Sistema batek energia-sistema bat eraldatu, ekoitzi, konektatu, mantendu eta elikatzen du→Hau da, elementu ezberdinen artean aldaketak ematen direnean sistema guztia aldatzen da.
- Familiak izaera bikoitza du:
PRIBATUA – Bere kideen banakako beharrak asetzea
PUBLIKOA – Bere kideen gizarteratze funtzioa + Balio eta jarrera arauen transmisioa.

1.1.3. FAMILIA EREDUAREN ALDAKETA: familia eta elkarbizitza unitate berriak

ALDAKETAK

ALDAKETA DEMOGRAFIKOAK

- Mugikortasun geografikoak
- Jaiotza-tasaren beherapena.
- Heriotza-tasaren beherapena eta bizi-itxaropenaren gorakada.
- Ezkontzaren beherapena eta atzerapena.

ALDAKETA SOZIOKULTURALAK

- Emakumearen rol sozialaren eraldaketa.
- Familia-ereduaren demokratizazioa
- Familia tamainaren murriztapena
- Elkarbizitza eredu berriak

ALDAKETA LEGALAK

- 1978ko Espainiako Konstituzioa.
- 1979ko Gernikako Estatutua
- Bestelako arauen aldaketa (seme-alabekiko ardura partekatua, guztien eskubideak)
 - 1981ko banantze eta dibortzioaren legea.
 - 1985ko haurdunaldiaren borondatezko etenerako legea
 - 2003 (Euskadi) Izatezko bikoteen Erregulazioak.
 - 2005eko Dibortzioaren erreforma.
 - 2015 gurasoen banantze edo haustura kasuetako familia harremani buruzko legea

BESTELAKO ALDAKETAK

- Familiaren funtzio berriak
- Funtzio pribatuak eta publikoak
- Familia sareak.....
- Familiaren oinarri biologikoen aldaketak.....
- Haurrak (amak) erosi ondoren sortutako familiak

1.1.3. AZTERGAI NAGUSIAK FAMILIEKIN GIZARTE ESKU-HARTZEAN

EGUNGO ALDAKETAK - GIZARTE LANGINTZA

- Familiaren funtzio eta rolen aldaketak.
- Pertsona bakarreko familiak eta gizarte-laguntza zerbitzuen igoera.
- Guraso bakarreko etxebizitzak / familiak zein adingabeei erantzuteko programen igoera.
- Familiaren demokratizazioa, usadio eta ohituretan.
- Familiaren garrantzia, babes sozialeko programei sorturiko "sare sozial alternatiba" bezala

FAMILIA MOTAK

- FAMILIA HEDATUAK
- FAMILIA NUKLEARRAK (postnuklearrak)
- GURASO BAKARREKO FAMILIAK
- FAMILIAREN NUKLEORIK GABEKO FAMILIAK
- PERTSONA BAKARREKO FAMILIAK
- PERTSONA ASKOTARIKO FAMILIAK
- BERRERAIKITAKO FAMILIAK

FAMILIAREN FUNTZIOAK

INTRINTSEKOA edo bere kideekikoak

- Pertsonen arteko lokarri intimoa.
- Seme alaben zaintza eta mantenu biologikoa eta psikologikoa.
- Sozializazioa, familia ta gizartearen eredu kulturalak jarraituz.

- Balioen esleipena.
- Ekoizpena eta kontsumoa, unitate domestikoa txiki bezala
- Seme-alaben prestaketa euren unitate familiarrak izateko

KANPOKOA edo gizartearekiko

- Seme-alaben ordezkari gizaritari begira
- Bizi kalitatearen hobekuntzaren laguntza (berea eta berea ez dena)
- Komunitateko beste familiekin harremana eta laguntza

FUNTZIONAMENDUAREN EKINTZAK

- Kontrola
- Rolak banaketa
- Gatazken konponketa
- Garapen pertsonala

FAMILIA “baten” BIZITZA ZIKLOA

1. Bikotearen eraketa
2. Familia seme-alaba txikiekin
3. Familia seme alabekin eskola-adinean edo nerabetasunean
4. Familia seme-alaba helduekin
5. Senar emazteak bakarrik
6. Bizitzaren azken urteak

FAMILIA ZIKLOAREN FASEA	TRANSIZIO EMOZIONALAREN PROZESUA	BEHARREZKO ALDAKETAK	BEHARREZKO TREBETASUNAK
1. HELDUA GAZTEA, INDEPENDIZATUA	<ul style="list-style-type: none"> Bakoitzak (berberak) hartutako ardura emozionala eta ekonomikoa 	<ul style="list-style-type: none"> Bakoitzaren (self) ezberdinketa jatorrizko familiarengandik, Berdineko harremanen garapena Baieztapen profesionala 	<ul style="list-style-type: none"> Gizarte harremanak Gaitasun profesionala
2. BIKOTEA – SENAR-EMAZTEAK	<ul style="list-style-type: none"> Sistema berriarekin konpromezua 	<ul style="list-style-type: none"> Ezkontideen sistemaren eraketa: arauen negoziaketa. Familia handiarekin eta lagunekin harremanen berdefinizioa- 	<ul style="list-style-type: none"> Komunikazioa. Negoziaketa.
3.FAMILIA SEME TXIKIEKIN	<ul style="list-style-type: none"> Kide berrien onarpena sisteman 	<ul style="list-style-type: none"> Ezkontideen (bikotekideen) sistemaren birdoitzea: <ul style="list-style-type: none"> Seme-alabei lekua eman. Funtzio ezberdinak antolatu. Gurasoen rola sortu. Berrelikadura familia handiarekin. Eskola sistemarekin harremanetan jarri. 	<ul style="list-style-type: none"> Gurasoarenak: seme-alaben hazkuntza. Komunikazioa. Negoziaketa

FAMILIA ZIKLOAREN FASEA	TRANSIZIO EMOZIONALAREN PROZESUA	BEHARREZKO ALDAKETAK	BEHARREZKO TREBETASUNAK
4.FAMILIA SEME-ALABA NERABEEKIN	<ul style="list-style-type: none"> Malgutasunaren handiagotzea sistemaren mugetan, seme-alaben independentzia onartzeko 	<ul style="list-style-type: none"> Guraso eta seme-alaben harremanen aldaketa, sistemaren sarrerak eta irteerak baimentzeko 	<ul style="list-style-type: none"> Komunikazioa. Harremana
5.SEME-ALABEN BURUJABETZEA ETA ONDORENGO DENBORALDIAK	<ul style="list-style-type: none"> Familia sistemaren sarrerak eta irteera askoren onarpena 	<ul style="list-style-type: none"> Ezkontide (bikotekideen) sistemaren birnegoziaketa. Heldua – heldua harremanaren garapena. Harremanen birlerrokatzea familia politikoa eta bilobak barruan sartzeko. Guraso eta senidekoen gaixotasuna eta heriotza onartu 	<ul style="list-style-type: none"> Kide bat joatearen talka (dolua) onartzeko. Komunikazioa. Harremana
6. FAMILIA BIZITZAREN AZKEN GARAIA	<ul style="list-style-type: none"> Belaunaldiaren rolen aldaketaren onarpena 	<ul style="list-style-type: none"> Beharakada biologikoa bada ere, funtzionamendua mantendu, Gizarte eta familia rol berriak garatu. Heriotza alderatu. Bizitzaren errebisioa. 	<ul style="list-style-type: none"> Seme-alabak berdinka bailiran bezala esperimentatu. Seme-alabak lagundu. Introspekzioa.

FAMILIA “baten” EGITURA SISTEMIKOA

EZKONTIDEEN - BIKOTEAREN AZPISISTEMA

– Lokarri afektiboak osaturiko bikotea, amankomuneko helburu eta interesekin. Beste azpisistemetatik babesten da.

GURASOEN AZPISISTEMA

– Bikotea gurasoen paperean, lokarri afektiboa eta psikologikoa semealabekin. Babesa eta heziketa funtzioa.

AZPISISTEMA FILIALA

– Seme-alabek osaturiko sistema, gurasoekin lotura izanik, gurasoak zahartzen direnean euren babesa eta zaintza dute.

SEME-ALABEN AZPISISTEMA

– Seme-alaben arteko sistema, berdinen arteko lehenengo esperientzia. Negoziatzen, kooperatzen eta norgehiagoka aritzen ikaste dute.

1.1.5. FAMILIEKIN GIZARTE ESKU-HARTZEKO EGOERAK

GATAZKAK ETA FAMILIAREN DESANTOLAKETA

- Aurreko begirunea: gure iritzia, gure esperientzi eta bizipenak markatua.
- Ondo funtzionatzen duen eta ez duen familien ezberdintasuna ez datza arazorik ez izatean, baizik eta, konpontzeko gaitasunean.
- Familia guztiek gatazka egoerak pairatzen dituzte, eta batzuetan egoera horiek arazo sozialak dakartzate, esku-hartzea beharrezkoa izanik.
- Gizarte zerbitzuetara doazen familia guztiak ez dira arazotsuak, edo, arazoaniztunak baizik eta behar sozialak dituzten familiak.

Familiak ondo funtzionatzen du..baldin eta

- Bere kideak ongizate egoeran aurkitzen dira, euren betebeharrak eta rolak egokiak dira adina eta heldutasuna kontutan hartuz.
- Kideak, euren beharren arabera, aurrera joan daitezke eta familiaren sistemaren etapa ebolutiboak onartzen dituzte, burujabetza on batera heltzen.

Ohiko gatazkak eta desantolaketa:

- Familiaren disoluzioa, banaketa, ezkontzaren baliogabetasuna, familiaren egoitza uztea, dibortzioa.
- Hutsik dauden familiak.
- Kanpoko krisiek sorturiko nahigabeko ez egotea.
- Nahigabeko akatsak funtzionamenduan.
- Tratu txarrak emakumeari eta seme-alabei.
- Zurztasuna (umezurtz egoera)

ARRISKU FAKTOREAK familian

BANAKAKOAK	FAMILIARRAK
<ul style="list-style-type: none">• Adimen-koefiziente baxuak• Gurasoen mendekotasuna• Buru-nahasteak• Heldugabetasunak• Droga menpekotasunak• Jokabide antisozialak	<ul style="list-style-type: none">• Seme-alaba asko jarraian• Autoritarismoa /laissez faire• Ereduen falta• Dinamika negatiboa (erasoak)• Zaurgarritasuna
SOZIO-KULTURALAK	INGURUNEKOAK
<ul style="list-style-type: none">• Maila kultural baxua• Ezegonkortasun ekonomikoa• Diru-sartze gutxiegi• Isolamendu soziala	<ul style="list-style-type: none">• Etxebizitza faltan edo larria• Azpiegiturak faltan• Baliabide gutxiko gunea• Gune gatazkatsua

FAMILIA ARAZOANIZTUNA (REID eta EPSTEIN, 1972)

- 50 hamarkadan jaiotako kontzeptua, herrialde anglosaxoietan.
- Gizarte Langintzako teorian erabilia, ezaugarri zehatz batzuk betetzen dituzten familiak:
 - pobrezi handia
 - disfuntzio larriak
 - arazo estrukturalak
 - seme-alabak hezteko rolen desegituraketa,

- seme-alaben arduragabekeria eta utzikeria, batzuetan seme-alaben tratu txarrak eta abusuak
- gizarte zerbitzuekin arazo ezberdin asko
- aldaketarako motibazio eza
- laguntza jasotzeko jarrera ezkorra,
- bi senidek edo gehiagok jarrera desbideratua azaltzen dute, denboran egonkorrak eta nahiko larriak kanpoko laguntza izateko moduan.

FAMILIA ARAZOANIZTUNAREN EZAUGARRIAK (CANCRINI, 1991)

1. Bi senidek edo gehiagok jarrera desbideratua azaltzen dute, denboran egonkorrak eta nahiko larriak kanpoko laguntza izateko moduan.
2. Familiaren “elikadura emozionalaren” alderdi afektiboa betetzeko ezgaitasuna, batez ere gurasoen partetik, elkarbizitza familiarraren garapen egokia bermatzeko.
3. Lehenengo eta bigarenaren elkarrekiko ahalegina
4. Mugak ez daude argi eta garbi, oso irekiak. Arazorik gabe sartzen zaren familia da.
5. Baliabideak ematen dituzten gizarte zerbitzuen mendekotasun kronikoa. Mendekotasuna elkarrekikoa da.
6. Drogamenpekotasunen jarrera sintomatikoen garapena, askotan soziopatia batekin loturikoa.

FAMILIA ARAZOANIZTUNAREN TIPOLOGIAK

Ez dago familia arazo aniztasunaren eraketa eta egituraketa bakarra, gertakari konplexu baten aurrean gaude eta.


→Cancriniren arabera:

1. ALDIRIKO AITA
2. BIKOTE EZEGONKORRA
3. EMAKUMEA BAKARRIK
4. HARRIA BIHURTAKO FAMILIA

FAMILIAREN FUNTZIONAMENDUAREN DIMENTSIOAK

- KOMUNIKAZIOA
- ARAZOEN KONPONKETA
- GATAZKAK
- KONTROLA

- MALGUTASUNA
- PARTAIDETZA ETA HARREMANA
- ITUNAK ETA KOALIZIOAK
- MUGAK
- MITOAK ETA SINESMENAK



1.1.6.FAMILIEKIN ESKU-HARTZEKO BEGIRADAK ETA MITOAK

FAMILIAK - ESKUHARTZEKO BEGIRADAK eta MITOAK

FAMILIAK

- Nor garen galdetzen badigute, istorio bat kontatzen digute. Guri buruzko istorioekin eraikitzen da gure identitatea.
- Istorio horrek munduan kokatzen gaitu. Eta munduari buruz galdetzen digutenean beste istorio bat kontatzen dugu.
- Gure mundua, istorioei esker kontatzen dugu, gehienetan, inguratzen gaituzten gauzak nolakoak diren kontatzen.

Istorioetan 4 ezaugarri nabarmentzen dira (Kazdin):

- Istorioan esandakoa eta ez esandakoa bezala
- Istoria denboran zehar doan kronika bat bezala
- Istoria familiaren arteko elkar trukatzeko bezala elkarri istorioak kontatzean
- Istoria narratiba nagusien adierazpen bezala, pertsonarengan/erailtzailearengan eta terapeutan eragina izanik

Istoria horrela ulertzen, honetarako laguntzen gaitu:

- Gizakiok gure esperientzia nola antolatzen dugun ulertzeko.
- Gure bizitzan arazoak nola sortzen diren eta nola egin ahal dugun lan elkarrekin bertsoen berdefinizioan, perspektiba handiago batekin.
- Ulertu behar dugu gu istorio horien parte garela, barruan gaudela, eta eurekin *Narratiba Nagusiak* partekatzen ditugula.

MITOAK:

Istoria dira, baina istorio guztiak ez dira mitoak

Familiaren beste hainbat alderdi erlazional bezala, mitoak funtzio normalak dira. Eta gatazkak pairatzen dituzten familietan gehiegi garatu gabe edo gehiegizko muga dute.

- Familia guztietan mitoak daude.
- Mitoak familiaren harremanak garatzeko beharrezkoak dira.
- Mitoek defentsa eta babes funtzioak dituzte.

Ferreirak definitzen du:

→Familiaren partaide guztiek partekaturiko sinesmenak eta iritziak, euren elkarrekiko roleri buruz eta harremanaren izaerari buruz.

Familiaren mito hauek harremanaren arau sekretuak dituzte; arau hauek isilpean gordetzen dira, etxeko ohikeriaren barruan.

Partekatutako sinesmen horien atzean, batzuetan familiarentzat penagarri suertatzen diren errealitateak izkutatatu edo ezeztatzen dira.

Mittoa familiarekin elkartzen da, pertsona defentsa mekanismoekin lotzen den bezala. Sortu daitezken ustekabeko aldaketa edo nahasteak baretzeko indargetzailea da.

EZAUGARRIAK

- Kide bakoitzari rol bat ematen dio, denok onartuta, eta euren aurre egiten ba zaie, benetako tabu bat bihurtzen da.
- Ezaugarriak agintzen ditu kide bakoitzarentzat, familiaren barruko harremanak araututa uzten ditu.
- Barruko familiaren irudiaren parte da.
- Funtzio homeostatikoa, bere oreka mantentzen laguntzen du. Arrazoi honengatik arazo eta erresistentzia handiak aurkitzen dira aldatzeko
- Batzuetan, familiarentzat errealitate penagarria ezkutatu edo ezeztatzeke balio du. Bere onarpena oso mingarria izango litzateke.
- Belaunaldiz belaunaldi transmititzen da. Aurkitzeko familiaren garapenaren aztarnak jarraitu behar dugu.
- Mittoa ez da zergatik gezurra izan behar. Gertaera historikoetan oinarrituta egon daiteke.
- Familiak gurutzatzen duen testuinguru kulturalarekin egon daiteke lotuta.

Familiarekin garatzen dugun esku-hartzea oso garrantzitsua da argitzea zertarako balio duen mitoak → Horren bigarren mailako onura zein den bere funtzioa zehazten duela da.

MITOEN SAILKAPENA (Stierlin, 1974)

- Armonia mitoak :
 - Zoriontasun irudia azaltzen dute, bai iraganean eta hemenorain.
 - Armoniarekin lotutako oinarritzko mekanismoak: ezeztapena, idealizazioa.
 - Negatiboa den guztia ezeztatzen da eta, beste aldetik, positibotzat jo daitekeena idealizatzen da.
 - Mito honekin gertaera mingarriak edo desatseginak desagertzeko asmoarekin banakako zein taldeko emozioak eraikitzen dira.

- Familiaren irudi idilikoa azaltzen laguntzen dute, gehien bat gizarte langile, psikologo, terapeuten aurrean....eurek egin ahal duten epaiketa ahal den neurrian saihesteko.
- Barkamena/ordaintze eta Desenkusa/erredentzio Mitoak :
 - Oinarrizko mekanismoa: identifikazio proiektiboa, non pertsona bat edo gehiago, bizirik edo hilda, “bekataria/kopla burukoa” bihurtzen da.
 - Bekatari hauek:
 - Familiaren erruak espiatzen dute (bere kargu hartu)
 - Euren eta familia kideen erruak onartzen dituzte
 - Familiaren miserien errudunak dira

Oso desegituratuta/ minduta dauden familietan hainbeste zoritxar eta oinazerako dauden arrazoiak ikertu behar dira. Pertsona batengan zentratu beharrean, inplikaturak agertzen diren alderdiak ezagutu behar dira.

- Erreskate / Salbatze Mitoa:
 - “Salbatzaile mitiko” bati esker oinaze eta injustizia guztia konpondu daitezkearen sinismena. Bere irudi indartsuaz baliaturik, familiaren gatazka guztiak liberatzeko boterea du.

Hiru mito hauek kontutan harturik, askotan nahasturik daudela, familiekin garatzen dugun esku-hartzean adierazpen ezberdinak etorriko dira.

MITOEN ADIERAZPENAK

FAMILIAREN BATASUNAREN MITOA:

- Familia elkartuta agertzen da, identifikatu den “paziente” horrengan gatazken ardura deskargatzen.
- Horrelakoak entzuten dira:
 - Hemen beti oso batuta/elkarrekin egon gara.
 - Beti gauza guztietan ados egon gara.

– Identifikatu den “paziente honi” batasunaren apurketa leporatzen zaio, bera da mitoaren gezurra apurtzen ausartuko den bakarra.

FAMILIAREN ZORIONTASUNAREN MITOA :

– Familiak gertaera idilikoak azaltzen ditu. Oso adi egon beharko gara zuloak/arrailak ikusteko. Eurek azaltzen digute dena ez dela hain polita....

– Batzuetan (askotan) familiaren zoriontasuna, isilik gelditzen den kide baten zoritxarra edo oinazearekin batera dator.

– Zoriontasunak, mito bihurtuz “biktima” bat aurkitu dezake. Haurren/nerabeen somatizazioak.....beti izan gara oso zoriontsu...hau gertatu arte.....

NORMALTASUNAREN MITOA:

– Ez da bakarrik familietan gertatzen, gizartearen betiko helburua da.

– Alde batetik mitoaren ardatz nagusia aurkezten da: “beti izan gara familia normala”...” gure etxean ez dago errietarik”

– Beste aldetik, antzematen dan errealitatea mehatxutzat jotzen da. Hori dela eta, bere eragina txikiagotzen da, mitoaren indarragatik....inoiz ez dugu errietarik/iskanbilarik izan...nahiz eta orain....baina berehala bueltatuko gara lehengoko momentuetara.

– Maitasunean gertatzen den bezala....elkar maitatzen dugula hainbeste esan behar denean, gauzak oso argi ez daudelaren seinalea da.

GAITASUNA.....HORRETARAKO – MITOA:

– Benetan garenaren kontrakoa izateko desioaren adierazpena.

– Gure hurrekin oso ulerkorrak gara (eta benetan erabat kontrako jarrera zorrotza azaltzen da).

Mito honekin lotuta gure esku-hartzearen alderdi interesgarri bat aurkitzen da eta familiarekin esku-hartzen dugunean ikusteko gai izan behar dugu:

– Familiak mitoa adierazten du bere burua defendatzeko? Edo dagozkion gaitasun eta baliabideak erabiliz bere kabuz sendatzeko indarra ateratzen hasten da?

X BEZALA DA, BERE ANTZA DU , BERAGANDIK JASOTA – MITOA:

- Desenkusa mitoarekin lotuta dago.
- Kide bat horrela da, beti horrela izan delako, honen kopia osoa da, eta hori ezin da aldatu....
- Denok horrela jarraituko dugu, nahiz eta horregatik pairatu. – Identifikatu dan “pazienteak” heredatu duena zera da: ez dago horren kontra ezer egiteko, mito indartuz.
- Pertsona batengan zentratzen gara, berarengan fokua ipiniz, errealitate penagarria ezeztatzen....bena oreka mantentzeko asmoarekin.

1.2. GIZARTE LANGINTZAREN JATORRIA ETA GARAPENA. OBJEKTUAK ETA BERE ERREFERENTEAK

1.2.1. KONTZEPTU - KONTUAK

SWITHUN BOWERS - 1949

- “Casework” arte bat da, non giza harremanen zientzia eta harreman horien lanketa sortzen da.
- Gizakiaren potentzialtasuna eta komunitatearen baliabideak jolasean ipintzeko erabiltzen da, hiritarraren ingurumenerako edo bere zati baterako egokitzapena bultzatu nahian.

MARY RICHMOND - 1962

- Gizarte zerbitzuak pertsonalitatea garatzen du, hiritarra bere ingurune sozialera kontziente edo arduragabe egokituz, elementuen multzo eta baldintza bailiran bezala.

L. BRAY - 1966

- Diagnostiko sozialera garamatzen kasuen prozesua
- Informazio bilketa
 - Elkarrizketa
 - Datuen kontrastea
- Inferentziak edo ondorioak – Interpretazioa

M. MOIX - 1991

- Jendeari bere kabuz laguntzen lagundu behar diogu
- Elementu psikologikoak eta sozialak.
- Metodo psikosoziala

C. DE ROBERTIS - 2003

- Esku-hartze metodologia bat non pertsonei bakarka erantzutean datza.
- Bere egoera ezagutu diagnostiko ebaluatzaile on bat egiteko, horrela bere garapen pertsonala eta soziala bultzatzen duen esku-hartze egokia egin ahal dugu.
- Esku-hartze hori bere arazoak konpontzeko lagungarria da.

Kasuzko G.L-ren definizioak (Fernandez eta Ponce de León, 2012)

- Beharrak, baliabideak eta pertsonen beharrak ulertzeko metodoa (Porter, 1911)
- Pertsonen arazoaren aurrean euren autodeterminazioaren sustatzea, gizarte zerbitzuak erabiliz (Biestek, 1957).
- Pertsonari ematen zaion laguntza bere harreman sozialak hobetzeko, eta hark bere bizitza modu baliagarri eta pozgarrian eramateko egokitze sozialak egin ditzan (Friedlander, 1968).
- Zerbitzu pertsonala eta profesionala, gizarte langile batek gidatua, pertsonek euren arazo familiarak konpontzeko laguntza espezializatua (Davison, 1968)

MARY RICHMOND - 4 esku-hartzeren konbinazioa

- Banakotasuna eta ezaugarri pertsonalen ulermena.
- Ingurune sozialaren ulermena eta bere eragina.
- Gizarte langintzaren "mentalitatea"
- Ingurune sozialaren ekintza ez zuzena

MARY RICHMOND - Esku-hartzearen oinarriak

- Pertsonarekiko errespetua.
- Apaltasuna.
- Erronkak estimulatzea.

- Laguntza materiala bultzada bezala.
- Baliabide guztien parte hartzea.

INPLIKATURIKO NOZIOAK

- BANAN-BANAKO PROZESUA
- DIAGNOSTIKO SOZIALA
- GARATUTAKO HARREMANAREN GARANTZIA

AMAITZEKO

- Esku-hartze metodologia bat pertsonalitatea, beharrak eta baliabideak ulertzeko.
- Garapen pertsonala errazten du.
- Ingurune politiko eta burokratiko batek eraginda.
- Gertakari konplexua, dinamikoa, sistematikoa eta ebolutiboa.
- Harreman profesionala.
- Aholkularitza, informazioa eta esku-hartze prozesua

SINTESIAN

GLaren esku-hartze prozesu sistematizatua banakako edo familiako behar egoera baten aurrean. Baliabide pertsonalak eta instituzionalak mugitzen ditu, pertsonaren errealitatea eraldatzeko, hiritar bezala eskubide sozialak bermatuz.

1.2.2. OBJETUA, HELBURUAK ETA FUNTZIOAK

XEDEA/OBJEKTUA→ Banakako eta familia behar-egoeran, laguntza behar edo eskatzen duena

LAGUNTZEN DUGUN PERTSONA→ Erabiltzailea • Bezeroa • Hiritarra • Herritarra • Pazientea • Onuraduna • Lagundutako pertsona • Gaixoa • Hartzailea

GURE OBJEKTOA

Banakakoa

- Pertsonaren ikuskera gizaki biologiko, psikologiko eta soziala bezala, ingurunearekin interakzio iraunkorra du.
- Ingurunea ezinbesteko elementua bihurtzen da gizakia bere gaitasunen garapenik altuena lortzeko.

Amaia Ituarte, 1992.

Familia

- Odolez, ezkontzaz edo adopzioz elkartutako pertsonak sortzen duten gizarte taldea.
- Ezaugarri nagusiak: Egoitza komuna, elkartasun ekonomikoa, ugalketa eta ondorengoaren zaintza. (Iglesias de Ussel, 1988)

Behar - egoera

- Ingurune sozio ekonomikoa eta politikoaren arabera
- Beharra ≠ Eskaera

HELBURUAK - Hellen Cassidy, 1962

- Erabiltzaileak/Hiritarrak/Herritarrak/Bezeroak/Onuradunak bere baliabideak (material, psikosozialak) mugi ditzan lagundu eta arazoarekin nola elkartu eta konprometitu daiteken erabaki batera heltzeko.
- Pertsona garatzeko metodo zehatz bat bultzatu, bere pertsonalitatea eta jokaera indartuz, eta etorkizunean besteekin izan ditzaken arazoei aurre egiteko gaitasunak jorratu.

HELBURU ESPEZIFIKOAK - Escartin, Palomar eta Suarez, 1997

- Banako gaitasuna landu bere garapen prozesuan integratzeko.
- Bere ingurune bio-sozialean integrazioa bultzatu.
- Baliabide eta zerbitzuak eskuratzea erraztu.
- Behar-egoera batetik ateratzeko gaitasunak suspertu.

- Bere ingurunearekin harmonikoak ez diren jarrerak aldatzeko laguntza eman. •
- Beharrezkoak diren baliabideak eman.

1.2.3. SUBJETUAREN ETORRERA (objetuaren aurrean)

SUBJETUAREN ETORRERA

- Kasuzko gizarte langilea esku-hartzearen subjektua eta aditua bihurtzen da
- Gizarte kasua objektua bihurtzen da
- Errealitatea konplexua da, gure esku-hartzearen subjektua bezala
- Positibismoak subjektua eta objektua banatu du
- Aurrean dagoen pertsona gabezia dago
- Berari laguntzeko bere errealitatea ezagutu daitezken egoeretan banatzen dugu
- Ezagutza zientifikoaren muinarekin lotuta dago

KONTRA-MEZU NAGUSIA

- Aurrean dagoen pertsonak bere ezagutza sortu ahal du.
- Banakako ezagutza nagusitzen da, gizarte egoeretatik aldentzen.
- Gizarte arazoak pertsonaren baitan, bere pertsonalitatean sortzen dira, Ni-an.
- Gizarte langilea erabiltzailearen aurrean objetibotasunez kokatu nahi da.
- Erabiltzailearen irregulartasunak, desfunzionaltasuna, patologiak etab. gainditu behar dira.

PROPOSAMEN BATZUK

- Subjektua eta objektua elkarrekin doaz. Gizarte langilea ezagutza tekniko baten jabe da, eta erabiltzailea beste ezagutza batena den bezala.
- Humanismoarekin harreman profesionala bi pertsonen topaketa bezala ulertzen da. Ez dago subjektu-objektu.
- Gure esku-hartzearen objektua subjektu pentsatzailea da.
- Humanismoak, dialektikak, zibernetikak metodo kartesianoa gainditu nahi du.
- Subjektua konplexua denez ezin da homogeneizatu ezta errealitateetan txikitu.
- Subjektuaren konplexutasunak errealitate heterogeneoa islatzen du.

OBJETUAREN ARAZOA

- Pertsona – talde desorekatuak, disfuntzionalak.
- Gizarte orekak sortutako zapalkuntza.
- GLri ez zaio banakako gizakia modu independentean interesatzen, baizik eta klase egitura batean, non gatazkak, desorekak eta gizarte arazoak sortzen dira.
- Behar sozialak – arazo sozialak.
 - Behar sozialak eta baliabide sozialen bikotea da gizarte langintzaren esku-hartze esparrua objektibatzen duena
 - Behar – baliabide bikotetik → baliabide bikotera.
- Beharrak sistema kapitalistaren exigentzi bezala, eredu ekonomiko nagusia izateagatik.
- Ondasunak eta zerbitzuak beste modu baten sortu eta banatu daitezke, batez ere beharrak asetzeko

AHULTASUN – KALTE PSIKOSOZIALA SORZEN DITUZTEN EGOERAK

- Giza Eskubideak eta Eskubide sozialen Urraketa

1.3. GIZARTE LANGINTZAREN FUNTZIO ESPEZIFIKOAK PERTSONEKIN

1.3.1. FUNTZIOAK

FUNTZIOAK - Helen Cassidy, 1962

- Erabiltzailearentzat beharrezkoak diren gauzak egin.
- Erabiltzaileari bere kabuz gauza horiek egiteko laguntza eman.
- Erailtzailerengan maisutasuna eta konfiantza ezaugarri pertsonalak eraikitzen lagundu.

HISTORIKOKI (Torres, 1987: 304-310)

1. Zerbitzuak hornitu.
2. Birgaitu
3. Zuzendu
4. Sendatu – konpondu
5. Asistentzia
6. Gizarte babesa
7. Prebentzioa.
8. Promozioa.
9. Hezitzailea.
10. Administratiboa.
11. Antolaketa.
12. Ikerketa
13. Zerbitzuen ebaluaketa
14. Kontzientzia sortzailea.
15. Politika sortzailea.
16. Mobilizazioa / Errebindikazioa.
17. Gizarte politiken diseinatzailea.
18. Sortzailea
19. Gizarteratzea

MARY RICHMOND

- Gizarte testuinguruak pertsonarengan sortutako ondorioak ezagutu.
- Aurrekari pertsonal eta sozialak gizarteratze prozesuan.
- Pertsona bakoitzak duen altxorrik handiena bilatu eta indarra eman, bera gizaki bakar bat bezala ulertuz.

FUNTZIOAK KODE DEONTOLOGIKOAN

- Informazioa
- Ikerketa
- Prebentzioa
- Laguntza
- Zuzeneko arreta
- Sustapen soziala
- eta gizarteratzea
- Bitartekaritza
- Plangintza
- Gerentzia eta zuzendaritza
- Ebaluazioa
- Gainbegiratzea
- Irakaskuntza
- Koordinazioa

FUNTZIOAK: Cristina de Robertis (1992)

- Argitu – Babestu
- Informatu – Hezi
- Konbentzitu – Eragina izan
- Kontrolatu – Autoritatea ezarri
- Harremana izan – Aukera berriak garatu
- Lan harremana egituratu

FUNTZIOAK

- Erabiltzailearentzat beharrezkoak diren gauzak egin.
- Erabiltzaileari bere kabuz gauza horiek egiteko laguntza eman.
- Erabiltzailerengan maisutasuna eta konfiantza ezaugarri pertsonalak eraikitzen lagundu.

Helen Cassidy, 1962

- Zuzentzailea.
- Sendatzailea
- Informatzailea
- Prebentzioa
- Orientazioa
- Gaitzea – Trebakuntza
- Promozioa

Escartin, Palomar eta Suarez, 1997

1.4. PERTSONEKIN ETA FAMILIEKIN ESKUHARTZEKO GIZARTE LANGINTZAREN OINARRIZKO PRINTZIOAK. KODE DEONTOLOGIKOA ETA LANA PERTSONA ETA FAMILIEKIN

1.4.1. PRINTZIOAK ETA KODE DEONTOLOGIKOAK

PRINTZIOAK

OROKORRAK	ESPEZIFIKOAK
Edozein gizarte egoera batean erabiliak	Kasuaren diagnostikoan harremana sendotzen denean agertzen dira
<ul style="list-style-type: none"> • Onarpena • Komunikazioa • Banakako bereizketa • Partaidetza • Konfidentzialtasuna • Auto kontzientzia 	<p>Gizarte langileak informazio nahikoa duenean kasuari buruz.</p> <p>H.S., Mass, 1958</p>

ESKU-HARTZEKO OINARRIZKO PRINTZIOAK				
BIESTEK, 1957	BUTRYM 1976	BRILL (1973)	MOIX, 1995	BANKS, 1995
<ul style="list-style-type: none"> • Banakako bereizketa • Sentimenduen adierazpen esanguratsua • Inplikazio emozionala kontrolatua • Onarpena • Anti-kontrolaren jarrera • Autodeterminazioa • Konfidentzialtasuna 	<p>=</p> <p>=</p> <p>=</p> <p>=</p> <p>=</p> <p>=</p> <p>Personenganako errespetua</p>	<p>Harremana elkarrekin onartuta</p> <p>Harreman dinamikoa</p> <p>Harreman emozionala</p> <p>Harremanaren helburua argia, denboran mugatua eta ezberdina.</p> <p>Harreman zintzoa, errealista, arduratsua eta ziurra.</p> <p>Autoritatezko harremana.</p>	<p>Onarpena</p> <p>Autodeterminazioa</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gizakiaren , taldeen eta komunitateen eskubideak errespetatu eta bultzatu. • Ongizatea sustatu • Berdintasuna harreman profesionalean • Justizia soziala.

BANAKAKO (INDIBIDUALIZAZIOAREN) PRINTZIOIA BETETZEKO BALDINTZAK

- Zehaztasuna /Zorrotza izan / Artisaua izan
- Subjektibotasuna, aurreiritziak eta estereotipoak aldendu.
- Ulermen sakona eta malgutasuna erakutsi.
- Entzuten jakin eta behatu.

FITS - GIZARTE LANGINTZAREN NAZIOARTEKO FEDERAKUNDEA

- Autodeterminazioaren eskubidea errespetatu.
- Partaidetzaren eskubidea bultzatu.
- Pertsona bere osotasunean ulertu.
- Pertsonen indarrak identifikatu eta garatu.

OINARRIZKO PRINTZIPIOAK (Kode Deontologikoa)

- Duintasuna
 - Gizakia bakarra eta bortxa-ezina da eta bere baitan du balioa, bere interesekin eta helburuekin.
- Askatasuna
 - Gizakiak, giza ahalmenen jabe delarik, inork derrigortu eta eragotzi gabe egiten ditu bere egintza guztiak.
- Berdintasuna
 - Gizaki guztiek eskubide eta betebeharrak berberak dituzte, bakoitzak bere berezitasunak eta bereiztasunak izanagatik bateragarriak direnak.

PRINTZIPIO OROKORRAK (Kode Deontologikoa)

- | | |
|-------------------------------------|---|
| 1. Errespetu aktiboa gizakiari | 10. Justizia soziala gizartearekin |
| 2. Gizakia onartzea | 11. Giza eta gizarte eskubideak aitortu |
| 3. Kategorizazioak gainditzea | 12. Autonomia |
| 4. Balio-judiziorik eza | 13. Autodeterminazioa |
| 5. Banan-banan hartzea | 14. Erantzukizuna eta erantzukidetzak gizaki onuradunarekin |
| 6. Pertsonalizatzea | 15. Koherentzia profesionala |
| 7. Gizakiaren promozio integrala | 16. Lankidetzak profesionala |
| 8. Aukera eta eskubide berdintasuna | 17. Osotasuna |
| 9. Elkartasuna | |

1.4.2. LANA PERTSONA ETA FAMILIAREKIN

PERTSONAREN INDARGUNEAK EBALUATZEKO GIDA

1. Emaiozu erabiltzaileak gertaerak nola ulertzen duenari lehentasuna.
2. Bezeroa sinestu.
3. Aurkitu ezazu onuradunak nahi duena.
4. Mugitu ezazu zure ebaluazioa norberaren eta ingurumenaren indarguneetara
5. Egizu zure ebaluazio dimentsio anitzeko indarguneetan
6. Erabili ezazu zure ebaluaketa banakotasuna/berezitasuna aurkitzeko.
7. Erabili ezazu erabiltzaileak ulertu ahal duen lengoaia
8. Egizu ebaluaketa erabiltzailea eta gizarte langilearen elkarlan bezala
9. Heldu zaitetz ebaluaketari buruzko bion arteko adostasun batera
10. Saihestu ezazu errua eta errua botatzea
11. Saihestu ezazu arrazoieta eta efektuetan pentsatzea
12. Ebaluatu → ez diagnostikatu

1.5. BANAKAKO ETA FAMILIAKO MAILAN DAUDEN

ESKU-HARTZE EREMU EZBERDINAK

1.5.1. ESKU HARTZE IKUSPUNTU EZBERDINAK

A. BEHARREN GATAZKEI AURRE EGITEKO ESKU-HARTZEA

- Gizakiaren oinarrizko beharrak asegabetuta daudenean.
- Beharrak gizarte eskubideak bihurtzen dira.
- Bilakaera historikoa
 - Beharrak
 - Eskubide sozialak
 - Bizitza kalitatea
 - Herritartasun eskubideak
- Egoera berriei erantzuten:
 - Familiak orientatzen
 - Inguru giroaren defentsa eta kutsaduraren aurka

– Drogamenpekotasuna pairatzen duten pertsonen defentsa, laguntza, birgaitzea

B. ARAZOAK KONPONTZEKO PROZESUAREN ESKU-HARTZEA

- Pertsonaren errespetuan eta autonomiaren bultzadan oinarrituz, pertsonaren indarrak berpiztu.
- Gizartearen baliabideak eskuratzeko laguntza teknikoa.
- Gizakiaren funtzionamendu soziala gizartean – arazoa.
- Prozesu ordenatua, planifikatutako aldaketaren bila.
- Laguntza harremanaren garrantzia.
- EZAGUTZAK – BALIOAK – TREBETASUNAK integrazioa

ARAZOAK KONPONTZEKO HIRU OSAGAIEN INTEGRAZIOA BEHARREKOA DA		
EZAGUTZAK	BALIOAK	TREBETASUNAK
<ul style="list-style-type: none">• Giza zientziak: Psikologia, soziologia, antropologia.• Zuzenbidea, Ekonomia, Antropologia.• Egoera sozialak eta elkarreraginak• Laguntza-harremanaren teoria-praktika.• Ezagutza	<ul style="list-style-type: none">• Pertsona• Gizarte demokratikoa.• Instrumental, jardute profesionalerako	<ul style="list-style-type: none">• Informazioa biltzen• "Ni" profesionala garatzen.• Jardute profesionalerako pertsona, talde eta komunitateekin.• Kognitiboak• Elkarreraginerakoak.

C. TRANSAKZIO HARREMANEN PARTAIDETZAREN ESKUHARTZEA

- Pertsonen arteko elkarreraginean ipintzen da arreta.
- Bornfenbrenner (1987)
 - Gizakia sistema ba da bere maila txikienean, baina kiribila jarraituz, beste batekin dago harremanetan:
 - Mikrosistemak→ Familia, berarekin bizi direnak, lagunak, auzokideak, lagunak, etab.
 - Meso-sistema→ mikrosistemen harreman sarea.

- Exosistema → erakunde sozialak eta komunitatea.
- Makrosistema: Eragile sozialak, ekonomikoak, kulturalak
- Sistema baten aldaketak besteara dakar.

1.5.2. ESKU-HARTZE MAILA EZBERDINAK

ESKU-HARTZE MAILA EZBERDINAK

- Lagunak dira, pertsona bere osotasun integral eta konplexuan.
- Harreman estu bat pertsonarekin – urrutiago dagoen harremanera
- Banakako egoerari aurre egin eta globalagoa den maila ahaztu gabe.
- **MIKROSOZIALA**
 - Pertsonak, familiak, talde txikiek aurkezten dituzten arazoei aurre egiteko.
- **MAKROSOZIALA**
 - Erakunde, komunitate eta testuinguru sozialetan egiten da lana, bertan azaltzen direlako pertsonen gizarte ongizaterako eragile negatiboak.

ESKU-HARTZE MIKROSOZIALA: kontzeptua

- Esku-hartze mikrosozialaren arazo-egoerak gizakiak eratzen ditu hurbileko elkarreragin-sarean, familia bateko kide gisa, lagun, adiskide eta abarren talde bateko kide gisa; edo, bestela, ingurune hurbilean izan ditzakeen zailtasunetan, honako testuinguru hauetan: osasuna, hezkuntza, etxebizitza, etab.; beste pertsona eta gizarte-erakunde batzuekiko harremanetan ere.
- Esku-hartze maila horren ezaugarria harreman profesionalaren izaera da, non gizabanakoek elkarrekiko eta aurrez aurreko gizarte-langilearekiko elkarreragina duten. Kontuan hartzen badugu giza portaera funtsezko bi esparrutan mugatzen dela: arrazionaltasuna eta afektibitatea. Harremanaren esparru horretan posible da emozioak, sentimenduak eta afektuak adieraztea edo haiei eustea.

ESKU-HARTZE MIKROSOZIALA: helburuak

- Banakako zein familiako egoera-arazoaren eragileak ikertu.
- Egoera-arazoak azaltzearen prebentzioa pertsonan, familian edo talde txikian.

- Egoera-arazo horien sistemekin lan egin.
- Familia zein taldearen barruan sortzen diren transakzioak hobetu.
- Inguruarekiko pertsonen egokitze prozesua edo hobekuntza ahalbidetu.
- Pertsonen, familien eta taldeen harreman sareak indartu eta berreraiki.
- Pertsona, taldeen eta familien partaidetza aktiboa bultzatu.
- Esku-hartze sistematizatua garatu,
 - Behar berriei buruzko konklusioak ateratzen.
 - Ongizate erakundeei politika sozialerako proposamen berriak bidaltzen.
 - Pertsonen arteko elkarreaginean ipintzen da arreta.

EKINTZA MOTAK	
ZUZENA (erabiltzailearekin)	ADIBIDEAK
<ul style="list-style-type: none"> • Erabiltzaileen gaitasunekin esku-hartu, baliabideak erabiltzeko. • Krisi egoeretan esku-hartu • Laguntza profesional espezifikoa. • Aholkularitza. • Eginkizun edo ekintzetan esku-hartu. • Prozesuen zuzendari edo kontrola. • Erabiltzailea eta testuinguruaren arteko tartekaritza. 	<ul style="list-style-type: none"> • Elkarriketak • Taldeko lana • Informazioa, orientazioa, deribazioa • Telefonozko arreta • Etxeko bisitaldiak • Diagnosiaren balorazioa • Esku-hartze planen negoziazioa • Ingurune sozialarekin harremanak

EKINTZA MOTAK	
EZ- ZUZENA (erabiltzailerik gabe)	ADIBIDEAK
<ul style="list-style-type: none"> • Lanaren egituraketa: Antolakuntza / Dokumentazioa. • Pertsonekin eta Erakundeekin • Bestelako profesionalekin 	<ul style="list-style-type: none"> • Administrazio lanak • Informeak, fitxa sozialak eta historia sozialak lantzea • Beste profesional batzuekin bilerak • Erabiltzaile ez diren pertsonekin telefonozko harremana • Autoformazio zereginak • Hitzaldiak antolatzea • Prebentzio edota sustatze kanpainak antolatzea • Baliabide sozialak ezagutzea • Egunerokoa burutzea • Baliabide eta prestazioak tramitatzea • Proiektu eta memoriak egitea • Formazio ikastaroak ematea • Ikasleen praktikak gainbegiratzea • Beste profesional batzuk gainbegiratzea • Ikerketetan parte-hartzea edo egitea

ESKU-HARTZE MAKROSOZIALA: kontzeptua

- Ikuspegi makro sozialetik, kontuan hartu behar dira komunitate geografiko batean eragina duten faktoreen azterketa, erakunde sozial eta kolektiboekin lan egitea, haien beharrak aztertzea eta arazoak minimizatzen ahaleginduko diren jarduera-planak diseinatzea.
- Esku-hartze maila hori gizakiaren garapen integrala erraztera bideratuta egongo litzateke, eta, azkenik, gizarte-ongizatea eraikitzea.

ESKU-HARTZE MAKROSOZIALA: helburuak

- Komunitatean edo gertuko testuinguru baten agertzen diren egoera-arazoen eragile kulturalak, sozialak, demografikoak eta ekonomikoak ikertu.
- Egoera horietan agertutako baldintzak aztertu.
- Erakunde sozialei eta komunitateari bere arazoak ulertzen lagundu, baliabideak erabiltzen eta eurekin konektatzen. Horrela konponbideak proposatzeko aukera dute, egoera hobetzeko.
- Erakunde eta komunitate horietan esku-hartu, egoera-arazoei aurre egiten, eta, konpontzen, ondorioak gutxitzen.
- Ongizate Erakundeak zuzendu.
- Programa sozialak ikertu, planifikatu, zuzendu, administratu.
- Gizartean sortzen diren baliabide instituzionalak bultzatu.

1.5.3. ARAZOAREN EGOERAREN ARABERAKO ESKU-HARTZEA

LEHEN MAILAKO ESKU-HARTZEA: kontzeptua

- Prebentzioak gizarte-egoera jakin batzuen kausetan esku-hartze goiztiarra egitea dakar, gizarte-egoera horiek zailtasun-esparruak edo bizitza kolektiboan arazoak sortzen dituztenean, edo arrisku-egoeretan dauden biztanle-taldeek zerbitzura esku hartzeko ereduak egiten direnean.
- Arrisku-faktoreek gertaera negatiboa agertzeko probabilitateak areagotzen dituzte; babes-faktoreek, aldiz, agertzeko probabilitateak murrizten dituzte.
- Lehen mailako esku-hartzea eskubide eta behar unibertsalei dagokienez ulertzen da: diru-sarrera nahikoak, etxe egokia, osasun-laguntza eta hezkuntza egokia.
- Gizarte-baldintzak hobetzera bideratuta dago.

- Esku-hartze horrek, halaber, aldaketak behar dituzten gizarte-baldintzak deskribatzen dituzten egoerak ikertzea esan nahi du, bereziki ahulenekin eta gutxiengo etnikoekin, herri horietako desorekak aipatuz, eta pertsona, familia eta taldeetan baldintza horiek murrizteko zerbitzuen plangintza eta orientazioa adieraziz.

BIGARREN MAILAKO ESKU-HARTZEA: kontzeptua

- Bigarren mailako esku-hartzea arazoa agertzen den seinale goiztiarrenetara bideratzen da. Esku-hartze mota hori diagnostiko goiztiarrera eta tratamendu azkarrera bideratzen da.
- Egoera jakin baten degradazio handiagoa saihestea du helburu, bai eta pertsonen, familiei eta taldeei aurre egiteko estrategiak garatzen laguntzea ere, etorkizunean antzeko egoera disfuntzionalak saihesteko ginarekin.
- Esku-hartzearen helburua arazoa ahalik eta gehien konpontzea da. Batzuetan interbentzio klinikoa ere deitu izan zaio.
- Arazoak argitzeko eta identifikatzeko prozesu baten bidez, esku hartzeko plan bat osatuz, eta arazo horiek tratatzeko prozesu baten bidez. Horrela, pertsonen, familiek eta taldeek arazo horiek konpontzeko duten gaitasuna handitu nahi da, etorkizunean sor daitezkeen beste egoera gatazkatsu batzuei aurre egiteko gaitasuna sustatuz.

HIRUGARREN MAILAKO ESKU-HARTZEA: kontzeptua

- Bigarren mailan daudenak baino arazo larriagoak edo egoera kaltetuagoak daudela adierazten du.
- Errehabilitaziorako deia jaso du, aldatuko ez diren arazoekin lan egitea esan nahi baitu.
- Arazo baten ondorioak edo arazoa bera aldatzeko jarduerak egitea da, pertsonen eta familiek funtzionamendu- eta autonomia-maila egokiena berreskuratu ahal izateko.
- Arazoek aurreko funtzionamendu-mailara itzultzerik ez dagoen intentsifikaziomaila hartu dute. Hala ere, posible da arazoaren hedapena kontrolatzea eta egoera horien ondorioak aldatzea, arreta ematen diogun pertsona indartuz eskura ditugun baliabideen posible erabilera hobean.
- Pertsonekin jarraipen-lan bat egitea planteatzen da, krisi-egoera bat gainditu ondoren.

HELBURUAK

LEHEN MAILAKO HELBURUAK

- Zailtasun sozial baten baldintzak sortzen duen egoeraren jatorria aztertu.
- Subjektuen ezaugarriak eta biztanleria-taldeen baldintza sozialak ezagutzea, arreta profesionaleko subjektuak baitira, arrisku sozialeko egoeran dauden edo egon daitezkeen taldeak definitu ahal izateko.
- Banakako zein taldeko behar errealak eta potentzialak ezagutzea

BIGARREN MAILAKO HELBURUAK

- Arazoen konponketa, aurre egiteko gaitasunak eta pertsonen garapena erraztea.
- Giza sistemen eraginkortasuna eta funtzionamendua sustatzea.
- Pertsonak baliabideak, zerbitzuak eta aukerak eskaintzen dizkieten sistemekin erlazionatzea

HIRUGARREN MAILAKO HELBURUAK

- Arazoa gehiago larriagotzea saihestea
- Pertsonen birgaitze prozesua bultzatu.
- Gaitasun funtzionala berrezartzea eta gizabanakoen eta familien gaitasun pertsonal eta sozialak maila "nahikoa" berrezartzea, ahalik eta independentzia- eta autonomia-mailarik handiena sustatzeko.

1.5.4. ESKU-HARTZE TESTUINGURUAK

ZER DA TESTUINGURU BAT?

- Ingurune fisikoa, egoera, politikoa, historikoa, kulturala edo beste izaerakoa non gertaera bat suertatzen da.
- Testuinguru batean egoera transakzionalak sortzen dira, eta horren arabera jarrera ezberdinak garatzen dira.
- Bertan sortzen diren mezuak adierazgarriak egiten dira.

GIZARTE LANGINTZAN

- Esku-hartzearen helburua(k), itzaropenak, esplizituak eta konpartituak dira.
- Harreman profesional kolaboratzaile bat eraikitzen da.
- Testuingurua, gizarte langile bezala, ez ba dut argi eta garbi, nahasmena sortuko da bakoitzak ulertzen duen esanahiarekin.
- Akordio esplizitu baten ondorioa da.
- Laguntzen dugun pertsona eta gizarte langilearen artean eraikita:
 - Denbora zehatz batean lan egingo dugu.

- Helburu zehatzen bila.
- Adostutako baldintzetan.
- Prozedura ezaguna eta onartua.
- Gizarte langilearen zerbitzuaren barneko markoan.
- Ondoeza psikosozialen konbinazioek testuinguru ezberdinak bultzatzen dituzte: LAGUNTZA, INFORMATZAILEA, AHOLKULARITZA, KLINIKOA, EBALUAKETA, TREBAKUNTZA, KONTROLA, BITARTEKARITZA.


TESTUINGURUA: HASIERAKO ITUNA

- Elkarrekin adosten dugu lan egitea, hainbat alderdiekin, ondoeza sortzen duen gaiekin. Ulertu dugu zer den aldagarria – eraldagarria.
- Adostutako arau esplizituak ditugu, helburua dakigu eta nahi dugu.
- Batzuetan lan prozesu honen barruan beharrezkoa izango da alderdi gehiago ezagutzea.
- Esku-hartze proiektua malgutasunez eraikitzen dugu, eta beste helburu berrietara mugitu daiteke, egoera berriei aurre egiteko.

TESTUINGURUAK ETA META-TESTUINGURUAK

- Testuingurua aldaketa prozesuarekin dago lotuta.
- Prozesu ordenatua, zehatza eta zorrotz baten emaitza da. Bata besterekin adostua, arazoaren nondik norakoak ezagututa, konponbidearen bidean, profesionala eta pertsonaren arteko lehenengo harremanetan garatzen da.
- Argi izan behar dugu non gauden.
- Esku-hartze testuinguru honek ez du zentzurik izango zerbitzu edo programaren markoan garatzen ez ba da.
- Zerbitzua erakundearen markoan kokatzen da.
- Marko horiek muga legalak eta administratiboak dituzte, lehentasun politikoak daude, kudeaketa eredu eta egitura bat dute. Arau esplizituak eta ez esplizituak, sinesmenak eta tradizio historikoak daude.
- Eskaintzen dugun gizarte zerbitzua meta-testuinguru batean kokatzen da, eta horrekin lotuta, gure esku-hartze testuingurua garatuko da.

TESTUINGURU MOTAK



1. LAGUNTZA TESTUINGURUA

- Tradizioz eskaera ekonomikoarekin lotutakoa.
- Kronifikazioa, eskaera anitzak zerbitzu ezberdinetan, oinarrizko zerbitzuen ohiko eskaera.
- Eskaera oso konplexuak.
- Nola erantzun zaila da: ni ez naz arduraduna, pasibotasuna, gizarte zerbitzuekiko menpekotasuna batzuetan.
- Kontuz prozesu zirkularrekin
-

2. TESTUINGURU INFORMATZAILEA

- Puntuala den eskaera eta informazio zehatz baten bila dago erabiltzailea. Eskaera honek ez du laguntzen denboran zehar laguntzagarremana eraikitzeo aukera sortzen.
- Hala eta guztiz ere, informazio bila datorren eskaera, lotura bezala bihurtu daiteke.
- Ezaguna da, askotan hasierako eskaera eta benetako eskaera ez datozela bat.
 - Egoera honetan eskaera gure lana hasteko elementu pizgarria izan daiteke, erabiltzailea beste zerbitzuekin kontaktatzeko, eta akaso, beranduago eskaera zehatzagoak planteatzeko.

- Testuinguru honek askotan prebentzio funtzioa du.

3. TESTUINGURUA: AHOLKULARITZA

- Arazo bat konpontzen ipintzen gaitu, edo egoera baten aldaketaren mugimenduan.
- Bizitza-zikloren baitan sortutako aldaketak, desorekak.
- Hiritarra/Herritarra bere kabuz doa, eta berarekin harreman kolaboratzailea sortzeko aukera ona dago.
- Azkar bagoaz, batzuetan ez diogu ondo laguntze pertsonari eskaeraren sentidua ulertzen. Gainera, gure erantzunak mugatuak izan ahal dira, eta horrek menpekotasuna sortu ahal du, planteaturiko beharren dinamika aldatu gabe.

4. TESTUINGURU KLINIKOA

- Paziente eta terapeutaren arteko harremanean oinarritzen da.
- Pazientearen osasun mentala edo ondoeza existentzial batekin lotuta dago.
- Terapeutak askotan proposatzen du lan-egitasmoa.
- Zer bilatzen du:
 - Jarreran aldaketa
 - Inguruarekiko egokitze prozesuak
 - Osasun mentala edo fisikoaren hobekuntza
 - Identitate psikologikoaren osotasuna
 - Pazientearen ongizate bio-psiko-soziala

5. TESTUINGURUA: EBALUAKETA

- Eskaera ez da bat-batekoa.
- Betebehar batekin dago lotuta, bizitza aukera berri baten bila doalako.
- Ohiko ebaluaketak: adopzioa, zerbitzu bat eskuratu.
- Hasieran eskaera burokratikoa dena, pertsonarekin kolaboratzen ari garelako aldatzen doa eta hazkunde egoera bihurtu daiteke.

6. TESTUINGURUA: TREBAKUNTZA

- Onuraduna/erabiltzailearen eguneroko bizitzarekin lotutako gaitasun pertsonalen garapenerako eskaera.

- Laguntza sistemak (gizarte langileak) ikasketa berriak egiteko prozesua martxan ipintzen du: “nola egin” edo “egiteko modu berriak” dira helburuak.
- Harreman bikoia osagarria: Egin – ez egin
- Motibazioaren osagaia funtsezkoa da. Erabiltzaileak argi ikusi behar du proposaturiko trebakuntzaren sentidua eta onura.

7. TESTUINGURUA: KONTROLA

- Eskaera ez da erabiltzailearengandik etortzen, beste zerbitzutik baizik.
- Zerbitzu hori maila berean egon daiteke edo gizagailu-zerbitzu handiago batean (epailea).
- Lan egiteko hasierako motibazioa kanpoko da eta ez barnekoa.
- Ez da posible esku-hartzea ez garatzea.
- Gure esku-hartzea egoeran inplikaturiko zerbitzuen ebaluaketarekin bat dator.
- Batzuetan arrisku egoeren ebaluaketa eta aurkitzearekin lotuta egon daiteke.
- Erronka: kontrolaren definizioa argi planteatu, ezkutuko mezu edo azpijoko barik.
 - Erabiltzailearen defentsa eta babes erantzunak saihestu bere erresistentzia handiagoa egin ez dadin, kurubila egin gabe.
- Batzuetan erresistentzia hori gure esku-hartze ezkutuarekin dago lotuta. Horregatik testuinguruaren argitasuna beharrezkoa izango da, egoera kronikoak prebenitzeko

8. TESTUINGURUA: BITARTEKARITZA

- Interes gatazka bat edo iritzi konfrontazioa dago eta pertsonalki eragina dago.
- Desadostasun horrekiko eskaera egiten da.
- Nahita egindako eskaera eta prozesu judizialeatik konfidentzialtasunarekin babesten da.
- Gatazken eraldaketa/konponketa arloan garatzen da.
 - Familiaren barruko desadostasun gatazkak: banantze eta dibortzioa.
 - Komunitate ingurugiroan, elkarbizitzan, eskoletan, elkarteetan emandako gatazkek.
 - Arlo penala edo presondegiko testuinguruan emandako gatazkak.
- Biktimak eta akusatuak-zigortuen arteko elkarriketak eman daitezke (bitartekaritzak, konferentziak)

1.5.5. ESKU-HARTZE PROFESIONALAREN EZAUGARRIAK

- Esku-hartze profesionala gauzatzen duen Gizarte Langintza, ondo definituta egon behar da, elementu teoriko-praktikoak uztartuz, aldagai anitzeko egoera sozial batean eskua sartuko dugulako.
- Historia profesional bat sortzera goaz (hasi baino lehen, bitartean eta ondoren) garatzen den esku-hartze profesional batekin.
- Beharren gatazkei aurre egiteko esku-hartzea.
- Arazoak konpontzeko prozesuaren esku-hartzea.
- Transakzio harremanen partaidetza bezalako esku-hartzea.

EZAUGARRIAK

- Koherentea:
 - Ideia eta ekintzen arteko harremana egon behar du.
- Kritikoa:
 - Gaien azterketa egiten, epaiketak egiten eta banakako-zein jarrera saihesten.
- Dialektikoa:
 - Jarraipen logiko bat jarraituz, modu metodiko eta justu baten, argudio eta diskusioarekin.
 - Egon daitezken oposaketak arrazoitzen, tesia eta antitesiari begira, sintesia bilatzen.
- Malgua:
 - Beste erabaki, ebazpen eta irizpide kontuan hartzeko jarrera ireki batekin.
- Konektatua:
 - Alderdiak, faseak, prozesuak eta momentuak harremanetan ipinita.
- Logikoa:
 - Prozesuak erregulariki garatzen dira, modu arrazoitua jarraituz.
 - Aldatu nahi duen errealitate sozialarekin lotuta.

- Arrazionala:
 - Arrazoitze jarrera bat izaten.
 - Gura pentsaera, ustea eta esku-hartzea errealitatearekin lotuta egonik.
 - Datuen esperientzia kontutan izanda.
 - Analisiaren antolaketaren printzipioak jarraituz.

- Teknikoa eta profesionala:
 - GLren trebetasunak, ezagutzak eta berezkoak diren edukiak uztartuz.
 - Modu sistematiko bat jarraituz.
 - Irudi profesional bati lotuta.

BATASUNA

- Gizarte langintzaren teoria ↔ Gizarte zientziak.
- Batasun hori zorrotasun profesionalarekin dago lotuta.
- Egitura teknikoa
 - Prozedura eraginkorrak ateratzeko gutxienezko gaitasuna.
 - Barruko koherentzia, alderdi txikiek oso bat osatzen dute.
- Ezagutzak
 - Egokiak izan behar dute, euren arteko harremana zainduz.
 - Garatu beharreko egoerak kontutan hartu behar dira.
 - Euren arteko kontraesanak garatu gabe.
 - Objektibotasuna bultzatzen → errealitate soziala ematen den bezala aztertzen. Aurreiritziak, estigmak eta etiketak albo batera utzita.
 - Jarrera malgu batekin, okerreko posizio bat zuzentzeko.
 - Objektibotasuna jarrera zientifikoarekin lotuta dago, jarrera tekniko-profesionalarekin batera doa.

ALDAKETA KONTZEPTUA

- Eraldaketaren eragileak gara.
- Baina zer aldatu? Nor aldatu? Zergatik aldatu? Nork aldatu?

- Neurketa eta ebaluaketa egiteko baliogarria da aldaketa.
- Egoera sustatzen duen aldagaietan aldaketa, elementu subjektiboak ahaztu gabe.
- Erabiltzailearen aldaketarako jarrera ikertu eta bultzatu behar dugu.
- Aldaketa, mugimendua da, gatazka eta desadostasuna.

KONTRAESAN KONTZEPTUA

- Gure inguruan dagoen guztia kontraesan baten dago, dikotomietan bizitzen gara eta.
- Indar psikoafektiboak eta sentimendu gatazkatsuak dazkar
- Gure epaiketa normatiboak zalantzan ipintzeko beharrezko kontzeptua da.
- Gertatzen zaiguna kontraesanetan garatu eta eraldatzen da.

ELKARREN MENDEKOTASUNAREN KONTZEPTUA

- Esparru sozialean gertatzen dena, beste entitate sozial, talde, azpitalde, kide, komunikazio kanalekin batera doa.
- Pertsona bati gertatzen zaiona indar sozialekin dago lotuta, eta elkarren mendekotasuna sortzen da.
- Elkarren arteko harremanak eta mendekotasunak hartu behar dira kontutan.
- Taldeen eta familien bilakaera ulertzeko ezinbesteko kontzeptua da.
- Pertsona batekin garatzen dugun GL bere taldeekin lotuta egon beharko da.

OREKA DINAMIKOA

- Aurrean aipaturiko hiru kontzeptuak (aldaketa, kontraesana eta elkarren mendekotasuna) gizarte langintza aplikatzerakoan ematen da oreka dinamikoa.
- Kontraesanetan dauden indarrak neutralizatzerakoan sortzen da oreka.
- Edozein gertaerak desegin ahal du oreka (espero ez genuena gertatu da, elementu berri bat agertu da).
- Gugana datozen erabiltzaile askok euren oreka galduta dute.
 - Banantze prozesuak, heriotzak, laneko kanporaketak, etxeko kanporaketak, ospitalizazioa.
- Baina, oreka berreskuratu dugunean, beste gertaera bat etor dakiguke.
- Mugimendu hau beti bizirik dago, gizarte langile eta erabiltzailearen artean.
 - Hori dela eta, bidea elkarrekin egin beharko dute.

LABURBILTZEN

- Gizarte Langintza errealitate konplexu batean garatzen da. Non elementu objektiboak eta subjektiboak ematen diren.
- Gizarte Langintza askotan kontraesanetan dauden indarren aurrean garatzen da, eta haien artean tartekaria bihurtzen da.
- Gizarte Langintza “bizitza” mailan ere garatzen da, erabiltzailearen gabezi edo hondatze maila edozein izanda ere, bere egoera aldatzeko “bizitza indarrak” ateratzen beharrekoa bihurtzen da.

ERANSKINA

Banakako eta Familiako Gizarte langilearen rolak eta gaitasunak

ROLA (Gure esku-hartzearen faseekin lotuta dauden ekintzen jarduera)

Gertaerak ezagutu	Elkarrizketa Behaketa	Sistematizatu Dokumentuen kontsulta
Gertaeren esanahia ulertu DIAGNOSTIKOA	Analisia egin eta interpretazioa (elkarrekin)	
Arazoa konpontzeko modurik onena erabili TRATAMENDUA	Plangintza, programaketa, Lana ingurunearekin Beste erakundeekin elkarlana	
Pertsonekin harremana eraiki LAGUNTZA HARREMANA	Esku-hartze zuzena Argitu, informatu... E. Raya, 2010	

GAITASUNAK

1. Harreman profesionalak eraiki esku-hartzeko modurik egokiena aurkitzeko.

2. Pertsonak, familiak, taldeak eta erakundeekin esku hartu erabaki zuzenak hartzen laguntzeko, euren beharrak, egoerak, arriskuak, lehentasunezko aukerak eta baliabideak kontutan hartuz.
3. Esku-hartzeko estrategia bat garatzeko beharrak eta aukerak baloratu.
4. Krisi egoeretan erantzun, egoeraren larrialdia baloratu, horiei aurre egiteko ekintzak planifikatu eta garatu, dagozkion ondorioak errebisatu.
5. Pertsonekin, familiekin eta erakundeekin elkarri eragin, aldaketak lortzeko, euren garapena bultzatzeko eta bizitzeko baldintzak hobetuz, gizarte langintzaren metodo eta ereduaz baliaturik, sortzen diren aldaketen jarraipen erregularra egiten esku-hartzearen amaiera prestatzeko helburuarekin.
6. Esku-hartze planak sistema-bezeroarekin eta kide profesionalekin prestatu, ekoiztu, martxan jarri eta ebaluatu, erabiliko diren zerbitzuak negoziatu eta esku-hartze planen eraginkortasuna inplikatua dauden pertsonekin errebisatu, behar espezifiko edo egoera aldakorrak kontutan hartuz dagozkien aldaketak bultzatzeko.
7. Sistema-bezeroarentzat arriskuak suposatzen dituen portaerekin lan egin, bere egoerak eta baldintzak ikertzen eta ebaluatzen, beharrezkoak diren aldaketak bultzatzeko.
8. Eguneroko lanean jasotzen dugun informazioa aztertu eta sistematizatu, gure strategi profesionalak indartu eta errebisatzeko, gizarte mailan azaleratzen diren egoerei aurre egiten.
9. Gizarte langintzako proiektuak diseinatu, abian jarri eta ebaluatu.
10. Erabakiak hartzeko bilerak prestatu eta bertan parte hartu, pertsonen, familien, taldeen, erakunde, eta komunitateen interesak hobeto defenditzeko.
11. Arrisku egoeretan erantzunak eman beharrezkoak diren elementuak aztertu eta definitu ondoren.
12. Istorio eta informe sozialak kudeatu, aurkeztu eta konpartitu, osoak, leialak, eskuragarriak eta eguneratuta mantenduz, erabakiak hartzeko eta balorazio profesionalak
13. Gizarte ongizatearen erakundeen kudeaketa eta zuzendaritzan parte hartu.
14. Gizarte langintzaren praktikarik onenen egungo ezagutza ikertu, aztertu, ebaluatu eta erabili, lan esparruei buruzko berezkoak diren ezagutzak errebisatu eta eguneratzeko.

15. Gure gizarte langintzaren praktiketarako estandarren barruan lan egin, gure bilakaera profesionala bermatuz, asertibitate profesionala erabiliz gure erabakiak justifikatzeko, euri buruz kritikoki hausnartzeko eta gainbegiraketa garapen profesionalaren beharretara erantzuteko modua erabiliz.

[Ereduk - Google Drive](#)

KRONOSISTEMA DAGO NONBAITEN??? Nipa no?

Bigarren galderan erantzune apuntetan nun dau?

NI IDEA IDATZI ESATEN DIZUNA IRAIAAA

Irantzuk ustet esan dola ovejas testun 4 gaien taula bat dao

Lehenengo galderan azaldu los mikrosistemas ta horiek eta bi printzipioak eta ya ez??

Ovejas testuko 8.orriko taula eta gero 16 orrian ere dao informaziua. Diagnostiko soziala jartzen duna

2. Diagnostiko soziala

Informazioaren analisisa eta balorazioa

Daukagun informazioaren harira, esku-hartzearen aldeko nahiz kontrako elementuak daude.

Zailtasunak premiazko behar-eremu hauetan sailkatzen dira, premiaren eta larritasunaren arabera:

- Arlo ekonomikoa: baliabide urriak (zorrak eta oinarritzko gastuak).
- Bizikidetzaren arloa: bikote-harreman gatazkatsua.
- Lan-arloa: Nora eta Mohamed langabezia.
- Gizarte-babeseko sarea: ez dago Noraren aldeko familia-babeseko sarerik.

Azpimarra daitezkeen familia-unitatearen indarguneak:

- Arlo ekonomikoa: diru-sarrerak urriak, baina aldirakak eta bermatuak.
- Etxebizitza-arloa: etxebizitza dute.
- Arlo pertsonala: Noraren ekimena zerbitzura jotzeko, bikote-dekorekiko harreman gatazkatsua partekatze eta lan egiteko nahia adierazteko.

1. taula. Behar-eremuak esparruaren arabera

Esparruak	Behar-eremuak
Egoitza	<ul style="list-style-type: none"> • Egoitza-egoera (erroldatzea) • Egoera juridiko-administratiboa (egoera legala)
Ekonomia eta lana	<ul style="list-style-type: none"> • Egoera ekonomikoa: diru-sarrerak eta gastuak • Lan- eta okupazio-egoera
Etxebizitza	<ul style="list-style-type: none"> • Ostatu- eta etxebizitza-egoera
Osasuna	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun-egoera • Desgaitasun- eta ezintasun-egoera lanari dagokionez • Mendekotasuna
Hezkuntza	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza; adingabeen egoera • Prestakuntza-informazioa-galkuntza
Norbera	<ul style="list-style-type: none"> • Jarrera, bizitako esperientziak eta itxaropenak • Gaitasun eta trebezia sozialak • Babes-sistemen erabilera
Bizikidetzaren arloa	<ul style="list-style-type: none"> • Harreman- eta bizikidetzaren arloa, egoera pertsonala eta familiara • Afektibitate-harremanak eta babes soziala jasotzea
Gizartea	<ul style="list-style-type: none"> • Bizikidetzaren arloa beste testuinguru batzuetan • Gizarte-onespena eta eguneroko bizikidetzaren komunitateak

Osea jarraitu behar da hori nara??? Hori erabilita atea ver dituzu Joxen bi ahulgune ta bi indargune.

hiru BALE BAINA DIAGNOSTIKOA EGITEKO??

DIAGNOSTIKO SOZIALA JARTZRU TITULUAN

Baino ahulgunek ta indargunek kasu hasieran o bukaeran?

Ta zuek ze elementu jarri baituzue ES00000

INDARGUNEAK

- ETXEBIZITZA

-EGOITZA

-EKONOMIA

AHULGUNEAK

- osasuna

-norbera

- bizikidetza

- gizartea

EPE LABURRE RA	Helburu zehatzak	Jomug ak	Jarduerak	Adierazleak	Baliabidea k
Epe laburrera (hilabete 1)	ELIKADURA ARAZOAK Gainditzea Nik helburua eta jomuga alderantziz jarriko nituzke hemen BERAK ESAN DIT HELBURUA	Pisua berresk uratu eta tripako minak ez	-Gizarte hezitzailea- dieta -janaria prestatzen ikasi	analitikak	Gizarte hezitzailea

	ZELA ELIKADURA ARAZOAK GAINDITZEA				
Epe ertainera(2-6 hilabete)	Zahartzaro aktibo bat izatea????? Harreman sozialak	Afizioa k edukitz ea eta laguna k egitea	-ikastaroa -baratzean lan egitea	IKASTAROK O IRAKASLEar en informazioa	Udalaren ikastaroa
Epe luzera (7-18 hilabete)	Seme alabekin kontaktuan jarraitu	Harre man egokia/ kordial a	Laguntza psikologiko ak deiak egiteko prest sentitzeko		psikologoa